



Etsaitasuna

1

Begiratu arretaz Emoziotegiko 52-53. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galdera hauei.

● Nola uste duzu sentitzen dela katua? Markatu.

☐ Erlastarren beldur da.

☐ Erlastarrekin haserre dago.

☐ Erlastarren inguruko jakin-mina du.

● Zer uste duzu gertatuko dela gero?

2

Idatz ezazu zer den katuak pentsa lezakeena.



3

Irakurri Emoziotegiko 52. orrialdean **etsaitasunari** buruzko testua, eta osatu esaldiak.

- Etsaitasuna sentitzen dugunean, norbait gure _____ edo _____ ari dela sentitzen dugu.
- Etsaitasuna sentitzen dugunean, _____ nahi izaten dugu.
- Etsaitasuna sentitzeak beste pertsona bat _____ eraman gaitzake.

4

Etsaitasunak lotura du kontrakotasunarekin. Osatu esaldiak **kontrakotasun** hitzaren familiako hitzekin.

kontrakotasun > kontra egon kontrajarri kontrako

- Nire bi anaiak _____ dira: bat ilehoria, bestea beltzarana; bat serioa, bestea oso xelebrea...
- Nire bi anaiek ideia _____ izaten dituzte askotan; bati ondo iruditzen zaiona besteari gaizki iruditzen zaio.
- Nire bi anaiak oporretan hondartzara joatearen _____; nahiago dute mendira joan.

5

Idatzi **etsaitasuna** adierazteko bi modu.

6 Idatzi hiru esaldi hauei kontra egiten dieten beste hiru esaldi.

● Arraina janari gozo-gozoa da.

● Hondartzan arratsaldean egoten da ondoen.

● Bizikletan ibiltzea kirol osasungarri eta dibertigarria da.

7 Lotu hitz bakoitza bere esanahiarekin.

● arbuiatu Norbait hitz itsusiekin mindu.

● muzindu Norbait gogaitzeko zerbait egin.

● eraso egin Norbaitekiko kontrakotasuna edo mespretxua
adierazi.

● iraindu Norbaiten kontra egin.

8 Idatzi etsaitasunez jokatu duzuneko bi egoera.

● Zergatik jokatu zenuen hala?

9 Pentsatu kontra egin dizuteneko hiru egoera, eta idatz itzazu.

● Kasuren batean etsaitasuna sentitu zenuen? Zeinetan? Nola erantzun zenuen?

10 Irakurri honako egoera hau, eta irudikatu bi bukaera: batean, Haritzek etsaitasuna adierazten du, eta, bestean, ez.

Haritzen lagunik onena Iñaki da. Aste honetan, Iñakiren lehengusu Kemen dago haren etxean bisitan. Kemen Iñaki eta Haritz baino urtebete zaharragoa da, eta oso harreman ona du bere lehengusuarekin. Haritzek Kemen ezagutu duenean...

Etsaitasunezko erreakzioa


Etsaitasunik gabeko erreakzioa

11

Idatzi Emoziotegiko 52-53. orrialdeetako irudiko katuak **etsaitasuna** adierazteko esan litzakeen hiru esaldi.

12

Zer uste duzu gerta litekeela gero katuaren eta erlastarren artean? Azaldu eta marraztu.





Etsaitasuna

OHARRAK

[illegible]

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.